

GURE LURRALDEA

II.—"Ara nun diran..."

Joandaneke idazkian, lurraldearen, paisajearen aurrean, *ikuslea, idazlea eta pintorea* utzi nituen. Gaurko ontan, ikusle utsakin jardungo naiz.

Lurraldearen ikuste utsak, besterik gabe, (begiak biotzarekin batera ba'dabiltz), gogoari atsegin benetakoa lekarkioke, batez ere paisaje ori *gurea* ba-da; ainbat geiago *ezaguna* ba-da, eta anitz geiago *ederra* ba-da, Euska-Erriko itxas-lurrak diran bezela.

Naiz urrera, naiz urrutira, mendi-gain batetik, esker-eskubi dakusgun begiragaiak, beti, *zerbait* esan oi digute: mendi-egal orlegiak, baso itzalak, sakoneko erreka dizditsuak, basetxe zurien mota alaiak, an nunbaiteko urrunean, lañopean nabaitu degun aitz erpiñak... Danak izketan diardue, eta beren izkera, benetako kanpo-zaleak, arrunt adituko du bere gogoari dagozkion esanetan. Inor ez da zerbaiten gogorapena bere barruan nabaitu gabe geldituko.

Batak, an-emengo mendiak, aruntzagoko aitzak, beren ize nez berriro ezagutzen saiatuko da, luzaroko pakean arrixka baten gañean exerita. Atsegin izango du, *Urko* gañetik, *Aitzko-rriren* ezkerrean, alako urruti batean, *San Donato*' ren kopeta gogorra aurkitzen badu. ¿Bera ote-da? ¿Ez ote-da? Zalantza auxe bera, asmatu naia, atsegingarria da.

Besteak, *Zelatungo* zelaitikan, esker-eskubiko begiratu betekin, Gipuzkoa osoa buelta batean inguratuko du: Bizkaya, bertan, *Oiz*-mendia, begipean; Araba, bertan, *Aloña* orren gibelean; Naparrua ementxe: ori dek *Aralar*. Ara emen, oñean, itxaso...! Zein txikia, zein ximurra, zein txukuna eta alai gure Gipuzkoako mendialdea.

Onek, bere aurrekoen jayotetxea egal batean atxituko du; arek, *Donosti*'ko *Gaztelua*, *Añorga*'ko keiak, *Santiyomendi*, *Men-*

dizorrotz... Danak, aizearen gañetik, galdera bat eg'ingo diote begien aurrean sortu zaioten ikustaldeari, eta lurrak, itxasoak, aitzak eta baserriak zer-edo-zer erantzungo diete.

Ez-du bear, kanpo-zaleak, ez idazle, ez pintore, ez jakintsu, paisajeari kutsu ongarri bat ateratzeko. Ara: Urte askotxoko kontua da auxe, 1917'garren urtekoa. Europa'ko gudualdia zan. Eibar'en, Sara'tar mutil gazte bat bizi zan, Praintzi'ko soldaduzkatik iges egindakoa: *Batichta*. Bainekian nik bere jayoterritik urrun, bakar eta samin, mutil gizajoa anitz eta geiago gogoratzen zala bere guraso, etxe eta parajietzaz, eta alako batean, gazte oneri biotzkada bat ematea asmatu nuen. Eibar'ondoko baserritar lagun bateri esan nion *Batichta*'rekin egoteko (alkar ezagunak ziran), eta jai-egun batean eraman zezala, *Arrate*'tik zear, *Maxamendi*'ra, eta andik, *Kalamu*'ko tontorretik, nik lagunari esandako aldera begiratu zezala *Batichtak*, *Jaizkibel*'en eskubitik, azken-urrutira: zerbait berea zana ikusiko zuela-ta...

Esan eta egin: *Batichta*, nere lagunarekin, *Kalamu*'ra igo zan, eta andik, bere jayoterri maiteko *Larrun* mendia ezagutu zuanean, negar gozo bat egin bear izan zuen.

Sasoi batean *Iparragirre* batek bezela: "*zabal-zabalik begiak*", gurasoen lur bedeinkatuari begira...

DUNIXI

